



BARREN
TOKIKOM



Lehenengo faserantz



Batxilergorako aurrematrikula zabalik:

On-line, maiatzaren 4tik 21era

Ikastetxean, maiatzaren 11tik 22ra*

*osasun-agintarien orientabideen eta balizko alarma-egoera luzatzeak ezar lezakeenaren arabera.



INFORMAZIOA WEBGUNEAN



Jardiñeta 3 Eibar . Tel.: 943 899262 . E-mail: 012055aa@hezkuntza.net

Web: www.eibarbhi.hezkuntza.net

Artezteko makinaren fabrikaziorako Elgoibarko enpresa batek (Doimak S.A.) diseinu eta produktu garapenerako ingeniaria behar du lantalderako.

- **LANPOSTUA:** Diseinu eta produktu garapenerako ingeniaria
- **HEZIKETA:** Ingeniaritza Mekanikoa eta Diseinu industrialia
- **BEHARREZKOAK DIREN EZAUPIDEAK:** Fabrikazio Teknologiak, CAD Diseinuko teknologiak , Geometria eta Ingeniaritza Kalkuluak. Hizkuntzak: Euskara eta Ingelesa.
- **DESKRIBAPENA:** ♦ Hautagaia Bulego Teknikoan integratuko da eta Multzo eta Makinen diseinuaz arduratuko da.
♦ Egin beharreko zereginak hauek dira: Baldintza teknikoak aztertzea, fabrikazio planoak 2D-en garatzea eta azpimultzoak eta makinak 3D-en garatzea.
♦ Egokitzapen epea igaro ondoren, hautagaia merkatuaren eskaerei erantzuteko gai izan behar da, eta produktu berrien teknologia eta garapenean lagunduko du.
- **ESKAINZA:** ♦ Lanabes-makina sektoreko enpresa garrantzitsu batean sartzea.
♦ Eduki teknologikodun eta etengabeko hobekuntza eskatzen duen enpresan girotzen den garapen profesionala.
- **BESTE ESKAKIZUN BATZUK:** Komenigarria da hautagaia Eibar edo Elgoibar inguruan bizitzea.

Interesatuak bidali curriculumak: webmaster@doimak.es.

“Egoera erraza ez bada ere, gustura bilduko gara Euskaraldia ariketa egin nahi eta horretarako aukera duten Elgoibarko entitateekin”

Dena prest zutenean etorri zitzaizen gainera COVID-19a Elgoibarko Euskaraldia Taldekoei. Euskaraldia ekimenaren bigarren edizioa Elgoibarko entitateei aurkezten hasita zeudenean. Zer egin asmatu ezinik geratu ziren. Geldi. Bi hilabete pasatu dira ordutik eta taldeko koordinatzailea den Imanol Larrañagarekin egon gara Euskaraldia zein puntutan dagoen esan diezagun.

Imanol Larrañaga, Elgoibarko Euskaraldia Taldeko koordinatzailea

● **Koronabirusak Euskaraldia ere kutsatu du, ezta?**

Bai, Euskaraldia ere ez da zorioneko birusaren atzaparretatik libratu. Hasita geunden bigarren edizioa herriko entitateei aurkezten, baina, bat-batean, dena bertan be-

hera laga behar izan genuen.

● **Pena, ezta?**

Bai, pena eman zigun, besteak beste, prestakuntza-lan handia egin genuelako. 40 laguneko aurkezle-sarea ere prest geneukan Elgoibarko entitateetara joan eta Euskaraldiaren bigarren edizioa aurkezteko. Energia eta ilusio asko bildu genuen gure lana ondo egiteko, baina... Hala ere, gurea ez da ezer ere koronabirusak jendartean laga(ko) dituen ondorioekin alderatzen badugu.

● **Etxealditik Euskaraldira ekimena prestatu duzue itxialdirako. Zergatik?**

Topagunetik heldu zitzaigun proposamena. Itxialdian Euskaraldiaren sugarra nolabait piztuta mantendu nahi zen. Etxean egon behar badugu, zergatik ez dugu etxeko hizkuntza-ohituren gaineko gogoeta egiteko aprobeztatzen? Saia-tuko al gara etxekoekin ditugun hizkuntza-praktikak euskararen mesedetan aldatzen? Hori zen helburua. Elgoibarren gure zalantzak izan genituen, ez genuelako argi ikusten jendea horrelako proposamen bati kasu egiteko une egokienean zegoenik, baina egitea erabaki genuen.

● **Zer moduz irten da?**

Sare sozialetan jendeak jarraitu du ekimena, eta whatsapp-profil dezentetan ikusi dugu Etxealdiko ikurra. Gainera, Euskaraldiko koloredun puntuak ere ikusi ditugu han eta hemen etxeetako leiho eta balkoietan. Baina ez dakigu zenbat etxe

edota familiatan egin den hizkuntza-ohituren gaineko gogoeta; ez dakigu zenbat etxetan egin den bertako hizkuntza-praktikak aldatzeko ahalegina. Edozein modutan, Elgoibarren guk nahi baino eragin txikiagoa izan duela esango nuke.

● **Buelta gaitezen Euskaraldiaren bigarren ediziora. Noiz eta zelan berrekingo diozue?**

Oraitxe dihardugu zelan berrekin pentsatzen. Badirudi osasun krisiaren okerrenea pasa dela, eta, Talde Eragilea eta aurkezle-sarea osatzen duten jendea prest badago, hasi egingo gara lanean, poliki-poliki bada ere. Udako oporren aurretik egon nahi dugu entitateekin bigarren edizioaren berri eman eta gauzak lotzen hasteko, baina badakigu entitate batzuk egoera txarrean daudela, eta haien egoerarekiko ahal dugun sentsibiltate handienaz lan egin nahi dugu.

● **Kasu egingo al diote entitateek Euskaraldiari? Haien ardurak ez al dira beste batzuk izango?**

Ez dakit. Hori da gure kezka nagusia. Galdetu egingo diegu eta ikusiko dugu zer erantzuten diguten. Batzuk, zoritxarrez, zulo beltz honetatik zelan irtengo diren pentsatzen egongo dira. Beste entitate batzuentzat, berriz, errazagoa izango da egoerari aurre egitea.

● **Nahi eta ahal dutenekin lan egitea izan daiteke aukera bat, orduan?**

Bai, hala izango da, derrigorrean. Nahi ez duenarengana ez gara joango, eta ezin duenarengana ere ez. Egoera erraza ez bada ere, gustura bilduko gara Euskaraldia ariketa egin nahi eta horretarako aukera duten Elgoibarko entitateekin.

● **Egingo da, orduan, ariketa udazkenean?**

Hori da asmoa. Lan-egutegia moldatuta, baina hasierako ideari eustea da gure buruetan dagoena. Udazkena, hala ere, urruti dago oraindik, eta ikusiko dugu zer bilakaera izaten duen nozitzen ari garen osasun- eta ekonomia-krisiak. Izan ere, gauza bat da guk zer nahi dugun, eta beste bat zer egingo moduan izango garen. Geroak esango digu.





ALEX SEGADE

Ikaslea

Hitz falta

inspirazioa etxean bertan bilatu behar dugu. Hala ere, fase 0 deritzon honekin zertxobait aldatu da egoera eta irten gaitzeko kirola egitera edo ibilaldiak ematera, beraz, orain ez da lehen bezain zaila inspirazio hori aurkitzea.

Nire kasuan horrela da. Asko kostatzen ari zait idaztea, adibidez iritzi hau, eta baita unibertsitatekin bidaltzen dizkidan lanak ere. Ez da hitz falta bakarrik, idazteko gaiak aurkitzea ere kostatzen zait. Agian motibazio falta izan daiteke arazoa. Dударik gabe desmotibazioa konfinamenduaren ondorioz dator. Egunero joan beharko naiz kirola edo zerbait egitera, ea inspirazioa aurkitzen dudan. Mendaron bizi naizenez ez dut ordu mu-

garik eta hori abantaila izugarria da.

Gainera, komunikabideetan koronabirusari buruzko berriak baino ez ditugu entzuten eta horrela oso zaila da koronabirusaren espiral horretatik irtetea eta gai ezberdinak tratatzea. Egia da ez direla beste motako berriak sortzen, baina tira, komunikabideek esfortzu bat egin beharko lukete koronabirusa alde batera uzteko, beti dago zerbait kontatzeko.

Espero dut egoera hau lehenbailehen amaitzea. Ez nuen inoiz pentsatu nire idazteko ahalmena hain kaltetuta egongo zela etxean hainbeste denbora egoteagatik. Ziur aski ez naiz bakarra izango idazteko zailtasunak dituen, baina benetan amorrua ematen duela ikustea ezin duzula idatzi betidanik egin duzun moduan.

Kazetarietzako eta idazleentzako denbora zailak dira hauek. Konfinamenduak etxean geratzera behar izaten gaitu eta horrek ez du batere laguntzen gure lanean. Idazterako orduan inspiratuta egotea eta hitzak sortzea ezinbestekoa da. Kalera irteteak eta aire freskoa hartzeak asko laguntzen du horretarako baina, klaro, konfinamendu garaian ezinezkoa denez etxetik irtetea,

“Ez nuen inoiz pentsatu nire idazteko ahalmena hain kaltetuta egongo zela etxean hainbeste denbora egoteagatik”



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Sustatuaren Topagunea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR
943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitako enantzikizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Jone Olai-zola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

BARRENEk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

▶ TRINITATEETAKO KARTEL LEHIAKETA

Trinitateetako kartel lehiaketak abian jarraitzen du, baina aldaketa txiki batekin. Data osoa jarri beharrean, urtea bakarrik jarri behar da orain. Hau da, agertu beharreko testua *Elgoibarko 2020ko Danborrada* da. Oraindik ere kartela aurkeztu ez baldin baduzue, mesedez, Herritarren Arreta Zerbitzura eraman (kontuan izan hitzordua eskatu behar dela 943 741 050 telefono zenbakira deituta). Eta zer iruditzen zaizue 300 €-ko saria Txankakuaren bonutan banatzen baldin badugu? Dena dela, hori irabazleak aukeratuko du; izan ere, sari ofiziala 300 €-koa da, dirutan; eta horrela izaten jarraituko du, irabazleak besterik erabaki ezean.

Elgoibarko Danborrada Atabal elkarte

▶ ARANTZA ETA EKAITZ

Lehenengo, eskerrak eman nahi dizkizuegu egunero Arregitorreko bizilagunak zuen musikarekin alaitu gaituzuelako, eta bigarrenaz, urtebetez bete dituztenek konfinamentu honetan zuen zorian-agurrak jaso ahal izan dutelako.

Orain zuek zoriontzeko eguna iritsi da. Ekaitz, zure eguna asteazkenean izan zen, eta zuk, berriz, Arantza, gaur, ostirala, beteko dituzu urteak. Jaso, beraz, gure zorionik beroenak. Aupa zuek!

Arregitorreko bizilagunak

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENEk edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraok, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzontzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.




III. URTEURRENA

Emiliano Marcos de la Torre

2017ko maiatzaren 4an hil zen, 85 urte zituela.

**Oso urrutira joan arren,
gure artean zaude beti.**

Etxekoak



**Begoña
Altuna Leyaristi**

2020ko maiatzaren 4an hil zen,
85 urte zituela. Sendiak bihotzez
eskertzen ditu jasotako doluminak.

**Zure irribarre goxoa eta maitasuna
betirako izango dira gure artean.**

Etxekoak



Zerbitzuak, merkatariaiek eta ostalariak oinarri hartuta eraiki nahi du Elgoibarko Udalak berreskurapen ekonomiko eta soziala

Koronabirusak eragindako osasun eta gizarte-krisiaren aurrean, merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen sektoreetara bideratutako berrakibatze-neurriak bateratzen dihardutela azaldu du Ane Beitia alkateak, Atsegin Uzuriaga eta Andrea Arriola zinegotziek lagunduta, bideokonferentziaz eman duen prentsaurrekoan. "Lehenengo aste hauetan, egoera okerrean zeuden pertsonen lagundu die Udalak, kolektibo ahulenen premia larrienak asetzen aritu da, hala nola adinekoenak. Elikagaiak, higiene-gaiak eta botikak eman dizkiegu, telefonoz deituta haien egoera ezagutzeko eta haien esanetara jarritz. Zalantzarik gabe, merkataritza eta ostalaritza ere kalte-tuenetako batzuk dira. Dagoeneko hitz egin dugu horietako batzuekin, baina gure helburua da neurri multzo zehatz bat prestatu eta adostea, denen beharrei erantzuteko, elkarteko kide izan ala ez". Erantzun-plan bat elkarlanean diseinatzea da Udalaren asmoa, eta plan hori unean uneko beharrei erantzuteko modukoa izateaz gainera, epe ertainera ere baliagarria izatea nahi dute. Gobernu taldeak azpimarratu du zerbitzuak, merkatariaiek eta ostalariak Elgoibarko ekoizpen sarearen funtsezko parte direla eta haien gainean eraikiko dela udalerraren berreskurapen ekonomiko eta soziala. Horregatik, hainbat sektoretako ordezkariekin hasitako harreman-erronda berrakibatuko dutela esan dute, estrategiak eta erantzun-plan bat zehazten jarraitzeko. Etorkizunari begira, ostalariei dagokienez, terrazetako distantziak mantentzeko eta mahai kopurua asko ez murrizteko, establezimendu bakoitzari hirigintza-azterketa pertsonalizatua egiten ari da Udala, egin daitezkeen egokitzapenak aztertzeko. Gainera, Udala terraza eta zabortasa nola murriztu aztertzen ari da, Udalaren presio fiskala murrizteko eta ostalariei eta dendariei laguntzeko. Hirigintza arloan, Urazandin igogailua egiteko proiektuari eutsiko diote eta Olaizagako igerilekua handitzeko obrekin jarraituko dute, baita Arriaga industrialdeko obrekin ere, besteak beste. Kulturean, birusa pasatu ondoren normaltasun berria izango dugu eta gauzak ez dira lehen bezala izango. Trinitate jaiak ezin izango dira formatu tradizionalan egin, baina Udala beste bide batzuk aztertzen ari da Atabal danborrada taldearekin eta musika eskolarekin.

Koronabirusak eragindako osasun-krisiak ezarritako alarma-egoera hasi zenetik orain arte egindako lana eta hartutako neurriak baliokidea eman nahi izan die Elgoibarko Udalak, eta Udal Gobernuak "atsekabetuta eta kezkatuta" dago oposizioko talde batzuk azken asteetan udalaren kudeaketari eginiko erasoengatik. Azkenik, Udalaren osasun finantzarioa ona dela esan dute, eta agintariek diote ahalegin guztiak egingo dituztela *Elgoibar Bizi bizixa*, dinamikoa eta aktiboa berreskuratzeko. Albiste hau osotasunean irakurtzeko: www.barren.eus



101 urte egin ditu Rosario Garatek

Rosario Garatek 101 urte egin zituen domekan, maiatzaren 3an. Jenaro Garate sastreariakoaren alaba da Rosario, 11 neba-arreben artean, laugarrena. Euti-quiano Matarekin ezkondu zen, eta lau- seme alaba izan zituzten. Hamar biloba eta 22 birbiloba ditu. Konfinamenduan tokatu zaio urteak egitea, eta etxean ospatu behar izan du.

Nahaste Borraste bertan behera lagatzea erabaki du Kimetzek

Ekainean jokatzekoa zen Nahaste Borraste proba bertan behera lagatzea erabaki du Kimetzek elkartek. Antolatzaileek esan dute atzeratzeko aukera ere aztertu dutela, baina azkenean, aurten proba ez egitea hobetsi dute, izan ere, Udalaren laguntzaz gain herriko establezimenduen babesa ere jasotzen du urtero probak, baina aurten alderantziz izan behar dela uste dute: "Aurtengoan uste dugu guztiz kontrakoa tokatzen dela eta beraiek direla denon laguntza beharko dutenak. Udalak ere dirua bideratzeko premia larriagoan dauden hautagaiak izango ditu, ziur gaude. Denda eta tabernen laguntzan sustengatu dira urteetan gurea bezalako hamaika ekimen herrian. Ea honek guztiak balio digun herriko bizitzan daukaten pisua aitortu eta zaintzen hasteko".



IMHn egindako maskarak herriko dendetan banatu dituzte

IMH Fabrikazioaren Zentro Aurreratuan 80 bat babes-pantaila egin dituzte herriko merkatari-entzako, 3D inprimagailuak erabilia, eta joan zen astean eman zizkieten Sonia Gomez Txankakuako presidenteari, herriko establezimenduetan banatzeko. Gizartearen ongizatearen alde laguntzen jarraitzeaz harro daudela esan dute IMHtik. "Berriz ere, 3D inprimaketak 4.0 industriaren zutabe teknologiko gisa duen gaitasuna erakusten digu, arlo horretan prestatutako profesionalen beharra sortuz. Zorionak IMHko talde osoari, ekimena aurrera ateratzeko egindako ahaleginagatik", adierazi dute. Manufaktura-metodoaren bidez, Multi Jet Fusión (HP) enpresak pieza horiek gehikuntza bidez fabrikatu ahal izan ditu agente anitzeko inprimaketa-prozesu baten bidez.





Merkatari eta ostalariei laguntzeko, 2020ko aurrekontuan 80.000 euroko gastua baimentzea proposatu du Mendaroko EHBilduk

COVID-19aren pandemiak herriko merkatari-entzako eta ostalariei eragindako kalteak arintzeko proposamena egin du Mendaroko EHBilduk eta udal gobernuari eskatu dio 2020. ekitaldiko udal aurrekontuan 80.000 euroko gastua baimentzea, helburu horretarako. Horren barruan, hiru eskaera egin dituzte: batetik, denda edo taberna itxita izan dutenei hilean 1.000 euroko laguntza ematea alarma-egoerak iraun bitartean. Bestetik, lokala errentan dutenei edo maileguan hartua dutenei beste 500 euro gehiago ematea egoera honek iraun bitartean, eta azkenik, denda irekita izan dutenei ere dirulaguntzaren erdia ematea, ez direlako %100ean jardun. "Ausardiak" jokatzeko eskatu diote udal gobernuari, dirua egon badagoela arrazoituta. "Udala herritarren aurrean dagoen lehen instituzioa eta gertukoena da, eta lehen erantzunak bertatik ere bideratu beharko lirateke, gainontzeko administrazioek eremu honetan epe labur nahiz ertainean har ditzaketen bestelako neurrien kalterik gabe", adierazi dute oharrean horren harira.

Koronabirusaren krisiari aurre egiteko "plan integrala" aurkeztu du Elgoibarko EH Bilduk

Herriko eragile politiko, ekonomiko eta sozialekin adostu nahi du Elgoibarko EHBilduk koronabirusak eragindako krisi ekonomiko eta sozialari aurre egiteko prestatu duten "plan integrala". Jon Peli Uriguenek Facebook sare sozialean aurkeztu zuen plana joan zen barikuan, eta dagoeneko erregistratu dute Udalean, organoetan neurriak eztabaidatzen hasteko. Uriguenek adierazi du salbuespeneko egoera batean gaudela eta salbuespeneko irtenbideak hartu behar direla, beti ere, herritarren ongizatea helburu bezala izanda. Era berean, esan du orain arte udal gobernari aurkeztu zaizkion proposamen guztiak ez direla aintzat hartu, hala nola, ezarri beharreko neurriak eztabaidatzeko eta adosteko mahaiak edo foroak osatzearena. Gainera, duela zazpi aste Covid-19aren krisia abiatu zenetik ohiko jarduerarik ez duela izan gogoratu du, ez delako egin ez batzorderik eta ez osoko bilkurrarik. Honen harira, konfrontazio politikoa bilatzea egotzi dio EAJk alderdi ezkertiarri: "Gure taldeak uste du lehendik dauden mahaiak indartu eta denok batera egin behar dugula aurrera. Hori da politikoki erantzukizunez jokatzeko. Ez da momentua bazterrak nahasten ibiltzekoa. Politikan denak ez du balio, egoera hau ezin da etekin politikoa ateratzeko erabili", esan dute EAJtik.

EHBilduren plan integralak alor desberdinak hartzen ditu kontuan. Hauek dira beraien proposamenetako batzuk: Neurri fiskaletan, zergen egutegia malgutzeko; Udal tasak birkalkulatu eta erabiltzaileentzat 30.000 euroko laguntza eta autonomo eta enpresa txikientzat interesik gabeko mikrokredituak ematea (50.000 euro). Sustapen ekonomikoari dagokionez, merkatari, ostalari, mikroenpresa eta autonomoentzako 650.000 euroko laguntza, eta 150.000 euro herrian kontsumitzeko bonoetarako. Era berean, Gizarte Laguntzetan diru partida % 25 igotzea aipatu dute, 170.000 eurotik 212.500 eurora, eta bertako produktuen kontsumoa sustatzeko kanpainarako 10.000 euro ematea. Herria dinamizatzeko neurriak ere aurkeztu dituzte: *Plazara* proiektua; bertako kultur eragileentzat egoera berriaren aurrean sortze prozesurako eta taularatzeko 20.000 euroko laguntza, komunikazio kanpainarako, 15.000 eurokoa, eta merkatari-entzako eta ostalari-entzako plan estrategikorako, 20.000 eurokoa (10.000 euro sektore bakoitzerako). Ekonomia foroa sortzeko 25.000 euroko partida aurreikusi dute, eta azkenik, etxebizitzak birgaitzeko laguntzak 50.000 euroan gehitzea proposatu dute (efizientzia energetikoa, ikuskaritza teknikoak, gazteen eta bestelako alokairua...)



▶ ANE BEITIA

ELGOIBARKO ALKATEA

La bi hilabete pasatu dira Espainiako Gobernuak alarma egoera ezarri zuenetik, eta beste bi astez luzatzea erabaki du Kongresuak aste honetan. Herriko jarduera kolpera eten zen martxoaren 14an, eta herritarrak etxean konfinatuta daude ordutik. Arintze fasean gaude orain: enpresetan jendea lanean ari da, denda txikiak astelehenean zabaldu zituzten eta datorren astean terrazak zabaldu ahal izango dituzte tabernariak. Herritarrek ere kalera irteteko baimena dute, ordutegi jakinen barruan, eta ondo bidean, datorren astetik, hamar laguneko taldeak biltzeko aukera ere egongo da, terrazetan edo etxeetan. Egoera honen aurrean, Ane Beitia alkateak eman ditu herrirako eta herritarrentzako hartu dituzten neurrien berri.

- AINHOA ANDONEGI -



“Udalak ahalegin guztia egingo du Elgoibar bizi-bizixa, dinamikoa eta aktiboa berreskuratzeko”

♦ **Martxoaren 12an itxi zituzten ikastetxeak, kultur eta kirol ekitaldiak bertan behera gelditu ziren eta bi egun beranduago etorri zen konfinamendua. Nola harrapatu zintuen erabaki hark?**

Alarma egoera deklaratu baino egun batzuk lehenago egoera okertzen ari zela konturatu ginen eta uste hori martxoaren 13an konfirmatu genuen, Segurtasun sailburuak LABI (Larrialdiei Aurre egiteko Bidea) emergentzia fasea deklaratu zuenean eta Lehendakariak bere gain gidaritza bakarra hartu zuenean. Berehala Udal eta Foru planak aktibatu genituen eta hortan hasi ginen, koordinazio lanean. Erabaki gogorak hartzen ari ziren eta erantzukizunez eta zuhurtziaz lanean jarraitu behar genuela konturatu ginen.

♦ **Herritarrentzat hainbat laguntza ira-**

garri ditu Udalak. Zeintzuk izango dira?

Lehenengo asteetan, gure lehentasuna egoera okerrean zeuden pertsonen laguntzea izan da, kolektibo ahulenen premia larrienak asetzen aritu gara, hala nola adinekoenak, elikagaiak, higiene-gaiak eta botikak emanez, telefonoz deituz haien egoera ezagutzeko eta haien esanetara jarritz. Honez gain, Udalean astero biltzen garen prebentzio mahaia eratu zen, larrialdi egoerei aurre egiteko. Udal langileei balia bideak eman zaizkie etxetik lan egiteko. Koronabirusari buruzko berriarazko gune bat prestatu da web orrian, eta bertan, Udalak hartutako neurri guztiak eta herritarrentzat interesgarriak izan daitezkeen gainerako berriak (dirulaguntzak...) jasotzen dira. Boluntarioen sareekin ere lankidetzan aritu gara,

Nagusilane Zilarrezko Haria eta Gurutze Gorriaren bidez martxan jarritako *Guztun Artea* ekimena aipatu ditzakegu, besteak beste. Kirol instalazioak itxi direnez, Olai-zogako igerilekuetan mantentze lanak egin dira; Gaztelekuak sare sozialetako jardura indartu du, nerabeekin harreman zuzenagoa izateko; hipoteka zorraren luzapena eskatzeko udal tramiteak ere erraztu dira, eta zenbait neurri fiskal ere hartu ditugu kolpe ekonomikoa arintzeko.

♦ **Oposizioaren ustez laguntza horiek ez dira nahikoak. Tasak eta zergak ez kobratzea eskatu dute, besteak beste, horien ordainketa atzeratzea ez dela nahikoa argudiatuta.**

Tasak eta zergak atzeratu ez ezik, ez ditugu kobratu. Hainbat neurri hartu ditugu esparru fiskalean herritarrei erraztasunak

eskaintzeko helburuarekin. Jendearentzat itxita dauden bitartean, denda, taberna, kafetegi, jatetxe eta gainerako jarduera profesionaletan hondakinak biltzeko tasaren kobrantza eten egin zen. Ekainean kobrantza arruntaren erdia aplikatuko zaie. Osasun krisian, terrazak jartzeari dago-kion tasa ere ez zaie kobratuko. Kasu horretan ere ekaineko kobrantza arruntaren erdia aplikatuko zaie. Neurri bera aplikatuko da jabari publikoak instalazio batzuekin okupatzen duen tasari dagokionez. Udal emakidako tabernetako alokairuen kobrantza eten egin zen. Kirol Patronatuaren ordainketaren zati proportzionala itzultzea erabaki da. Ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko epea irailaren 15era arte luzatu da. Zalantzarik gabe, merkataritza eta ostalaritza dira sektore kaltetuenetakoak. Dagoeneko hitz egin dugu horietako batzuekin, baina gure helburua da neurri multzo zehatz bat prestatu eta adostea, denen beharrei erantzuteko, elkarteko kide izan ala ez. Eta neurri egoiak hartzeko, ezinbestekoa da krisiak tokiko eremuan eragiten duen inpaktu sozial eta ekonomikoa dimentsionatzea, adostasunez egitea, udalerriko establezimendu guztien sentimendua eta errealitatea jasoz, merkataria, ostalari eta zerbitzuetan lan egiten duten guztiena, herritar guztiena. Eta horretan gabiz.

♦ **Merkataritza txikia, eta, bereziki, ostalaritza kalte handia jasaten ari dira. BARRENEK hitz egin du ordezkari batzuekin, eta uste dute Udalak emandako laguntzak oso urriak direla. Beraiek ere bildu dira zuekin eta jakinarazi omen dizue euren haserrea. Zein politika ezarriko ditu Elgoibarko Udalak bi sektore horiei laguntzeko?**

Esan bezala, lehenengo neurriak zergak arintzean oinarritu dira, zuzenean gure esku dagoen erabaki bat baita. Hainbat merkataria eta ostalarirekin hitz egin dugu eta hitz egiten jarraituko dugu Udalaren asmoa zein den jakinarazteko: erantzun-plan bat elkarlanean diseinatzea, hurrengo asteetan ez ezik, epe ertainera begira ere baliagarria izango dena. Merkataria, ostalari eta zerbitzuetan lanean ari

direnen gainean eraike nahi dugu udalerraren berreskurapen ekonomiko eta soziala. Horregatik, hainbat sektoretako ordezkariekin hasitako harreman-errondarekin jarraitu nahi dugu, estrategiak eta erantzun-plan bat zehazten jarraitzeko. Zentzu honetan Udalak ahal duen guztia egingo du haiei laguntzeko eta Elgoibarko jarduera ekonomikoa dinamizatzeko. Epe luzerako helburu gisa, Udalak ahalegin guztiak egingo ditu *Elgoibar bizi-bizixa* dinamikoa eta aktiboa berreskuratzeko. Udalaren ateak zabalik daude elkarlanerako.

“Zuhurtziaz jokatu behar dugu. Momentuan momentuko egoerari erantzuteko prest gaude”

♦ **Udalek Foru Aldundira dirua itzuli behar dute. Nola eragingo dio horrek Elgoibarko Udalari? Kolokan ikusten dituzu Udalak herriko elkartei ematen dizkien dirulaguntzak?**

Udalaren egoera ekonomikoa osasuntsua da oso. Azken legegaldietako kudeaketa ekonomiko zorrotzari esker, Udalak ez du zorrik, azken 10 urteetan zero defizita eta aurreko ekitaldietako soberakin-saldo positiboa indar bihurtzen dira aurkezten diren erronkei aurre egin ahal izateko. Hasieran esan dudan moduan, erantzukizunez eta zuhurtziaz jokatu izanak egoera baikorrago batetik abiaraztea ahalbidetzen digu. Zentzu honetan, oinarritzko zerbitzu publikoen kalitatea bermatuta egongo da. Udal aurrekontuak doitu egin beharko ditugu eta elkarteek ere, beraien behar berriak eta jarduerak egokitu beharko dituzte normaltasun berrira. Guzti honek eragin zuzena izango du partida eta dirulaguntzen zenbait lerrotan, baina inoiz ez dira kolokan izango. Herriko talde eta elkarteek funtsezko papera izan behar dute



berpizte prozesu honetan eta Udala bidelagun izango dute, betiko moduan.

♦ **Zazpi aste pasatu dira konfinamendu hasi zenetik, eta sare sozialetako fororen batean Elgoibarko Udalari leporatu diote aurpegia ez ematea, ixilik egon dela epe honetan eta ez duela informaziorik eman.**

Udala lanean aritu da lehen minututik, eta aipatutako ekimen eta neurri guztiak horren adibide dira. Guztiak eman dira ezagutzera Udalak erabili ohi dituen komunikazio kanalen bitartez: prentsa, bandoak, sare sozialak eta webgunea besteak beste. Azken honen kasuan gainera koronabirusarekin lotutako espazio berezi bat zabaldu da, sortutako ekimen eta laguntza guztien berri emateko. Zorritarrez, koronabirusak areagotu egin du norgehiagokaren politika eta sare sozialak horren isla dira. Sare sozialetatik at asko izan dira modu pribatuan eskerrak eman dizkiguten herritarrek, batez ere Gizarte Zerbitzuetatik egin den lanagatik, herritarren premiazko beharrak asetzegatik. Baina horiek ez dira publikoak. Sare sozialak ondo daude, baliagarriak dira horien erabilera zintzoa egiten bada, baina ez dira herritar guztien sententzioen termometro. Azken egunetan, ikusten ari gara kritika eta kontrolerako tresna bezala erabiltzen dituztela batzuek. Pentsatzen dut, gauden egoeran gure ingurukoak zaindu eta ahal dugun neurrian laguntzeko egon beharko ginatekeela eta ez hainbeste besteak egiten duena kolokan jarri edo salatuzko. Are gehiago larrizten naute sareen bitartez, tragedia batetik etekin politikoa atera nahi dutenen jarrera berekoiek edota nahasmena sortu nahi duten albiste faltsuek.

♦ **Zenbait herritarrek maskarak etxeko banatzeko eskatu diote Udalari sare sozialetan. Eudelek Udalei emandako 300.000 maskara ez zeuden egoera onean. Elgoibarri eragin dio horrek?**

Udalak ez du maskarak etxeko banatzeko eskaerarik jaso. Eudelek banatutakoek ez dute Elgoibarren eraginik izan, banatzen hasi gabe zeuden eta gainera, gurean, erretiratze abisua berehala iritsi



zen. Hala ere, aipatu beharra dagoela uste dut astero iristen direla maskarak etxez etxeko zerbitzurako, udaltzaintzako eta ehorzlearentzako. Eta horiekin ez du inork arazorik izan. Eta Osasun Ministeritzak dioen bezala, maskaren erabilera aholku bat da, ez obligazio bat, pertsonen arteko distantzia bete ezin den kasuetarako. Gutxienez bi metroko tartea mantentzea, eskuk garbitzea eta espazio publiko eta pribatuetan gehieneko higie-nea mantentzea dira lehenesten diren aholkuak.

♦ **Konfinamendu egoeran indarkeria kasuak areagotu egin daitezkeela ohar-tarazi dute eta Elgoibarko Udalak ere jarri zuen arriskuan egon daitezkeen emakumeei laguntzeko telefonoa. Zer balorazio egin duzue?**

Gizarte Zerbitzuek pisu handia hartu dute azken bi hilabeteetan, baina ez zait gustatzen datu delikatu eta pertsonaletan sartzea. Alerta egoerak dirauen bitartean, indarkeria matxistaren egoerei aurre egin behar dieten emakumei arreta bermatzeko Elgoibarren GERTU ekimena jarri genuen martxan. Laguntza zerbitzu bat da, telefono bidezkoa (688 804 672) eta birtuala, goizeko 7:00etatik gauko 21:00etara dagoena erabilgarri. Baina honez gain, 24 orduz funtzionatzen duen SATEVI telefonoa indartu da laguntza psikologikoa eta asistentziala eskaintzeko helburuarekin. Uneoro laguntza pertsonalizatua bermatuta dago. Gizarte larrialdietarako laguntzak indartu dira eta horietara iristeko bideak egokitu, ahalik eta pertsona eta familia gehienei laguntzeko. San Lazaroko egoitzan Mekak egindako babes-maskarak banatu dira, eskualdeko-ordinazioa ere funtsezkoa izan da behar-tsuengana iristeko, eta Debako aterpetxea horren adibide da.

♦ **Jaurlaritza ez dago konforme Pedro Sanchezek aurkeztu duen deseskalatze-arekin. Nola ikusten duzue Udaletik?**

Jaurlaritzak euskaldunon interesen alde lan egingo duen zalantzarik ez daukat eta horretarako protokolorik onena izaten ahal-eginduko da. Deseskalatze faseek erki-degoko bakoitzean prozesu desberdinak

izango dituzte, epidemiaren eboluzioaren arabera. Guri dagokigunez, normaltasunerako bidean hartu beharreko neurriak eta jarraibideak gurerako egokituko ditugu.

♦ **Nola ikusten dituzu Trinitateak, sanbartolomeak... jaiak, oro har. Ospatzeko moduan izango gara?**

Oraindik azkarregi da sanbartolomeen inguruan erabakiak hartzeko. Iku-siko dugu hurrengo asteetan nola eboluzionatzen duen birusak. Hala ere, Trinitateen kasuan bagabiltza alternatibetan lanean. Ezin izango dira formatu tradizionalan ospatu, baina esan bezala, beste bide batzuk aztertzen ari gara danborradako taldearekin eta musika eskola-koekin. Jaurlaritzak arestian aipatutako dokumentua lantzen duenean irizpide gehiago izango ditugu protokoloa egokitzeko.

“Udalak tokiko kultura sektoreari lagunduko dio eta hura sustatzeko konpromisoa hartzen du”

♦ **Udako aisialdia nola ikusten duzu?**

Kasu honetan ere Jaurlaritzak ezarritako protokoloa jarraitu beharko dugu, eta honen arabera, eskaintza egokitu. Udalak ezin du bere kabuz udaberri eta udako ekintzen inguruko erabakirik hartu. Zuhurtziaz jokatu behar dugu. Momentuan momentuko egoerari erantzuteko prest gaude, eta horrela egingo dugu momentua iristen denean. Denok dugu gogoia gure haurrak beraien lagunekin kaleetan jolasean ikusteko, baina segurtasun berme guztiarekin egin nahi dugu.

♦ **Esan eta esan ari dira "normaltasuna" ez dela izango orain arte ezagutu izan duguna. Nolako izango da aurrerantzean Elgoibarko jarduna?**

Argi dago "normaltasun berri" bezala deskribatzen duten egoera hori ez dela martxoaren 14 aurreko normaltasuna izango. Egoera, gainera, oso al-

dakorra da eta epe luzera begira, txertoa izateak ala ez, asko baldintzatuko ditu jende pilaketak eragiten dituzten ikuskizunak, bai kulturalak, bai kirol ikuskizunak... Horren inguruan ere suposatzen dut aplikatu beharreko protokoloen bat izango dugula, kultur espazio desberdinen ezaugarrien arabera, edukiera, etab. Udalak tokiko kultura-sektoreari lagunduko dio eta hura sustatzeko estrategia berriak indartzeko konpromisoa hartzen du. Baina esandakoa, zentzuz jokatu behar dugu: neurriak ezarri eta horietara egokitu, norbanakoen erantzukizunean azpimarra jarritz.

♦ **Krisialdi gogorra datorkigula diote adituek. Nola imaginatzen duzu gure herria hau dena amaitzen denean?**

Zorionez, deseskalatze prozesu honetan zehar, itxita egon diren dendek eta tabernek ateak zabaltzeko aukera izango dute, ez lehengo egoeran noski, baina pauso bat da. Espainiako Gobernuak ezarritako murrizketak leuntzen joatea espero dugu, tokiko ekonomia ahalik eta arinen berpizten hasi dadin. Tamaina honetako krisi batek langabezia eragin zuzena du, bai. Guk gure eskumenen bidez hartu ditzakegun neurriak abiaraziko ditugu, prestakuntzarekin lotutakoak adibidez. Epe luzera begira Udalak ahal-egin guztiak egingo ditu *Elgoibar bizi-bizixa* dinamikoa eta aktiboa berreskuratzeko, guztiok parte hartzen dugun Elgoibar bat. Beraz, ardatz estrategikoetako bat dinamizazioa izango da, hainbat arlotan: gizarte, kirola, prestakuntza, merkataritza eta kultura.

♦ **Besterik gehitu nahi duzu?**

Eskerrak ematea herritarrei inoiz ikusi gabeko osasun krisi baten aurrean orokorrean erakusten ari diren elkartasun eta jarrera arduratsuagatik. Era berean, gogorazi nahi nuke normaltasun egoera berrira ahalik eta azkarren bueltatzeko biderik zuzenena osasun arloko agintariek adierazitako arauak eta gomen-dioak errespetatzen jarraitzea dela. Eta nola ez, udaletxeko ateak zabalik daukela edozein beharrezan soluzioak emateko.

0 FASEA

Neurri bereziak hartuta zabaldu dituzte herriko denda eta negozio txiki asko

400 metro koadro baino gutxiagoko denda duten merkatariek eta aurrez aurreko hitzorduen bitartez lan egiten duten profesionalak lanari ekin ahal izan zioten berriro astelehenean, bai eta hainbat ostalarik ere, baina etxera eramateko janaria prestatzeko bakarrik. Etxebizitzetan zein lokaletan eraberritze lanak egitea ere baimenduta dago, beti ere etxeok ez daudenean eta obrak egin behar diren eraikineko gunea hutsik dagoenetan. Neurri bereziak hartu behar izan dituzte denek, eta horrek lan-zama handitu die, baina hala ere, pozik daude asko eta asko, jardunari berrekin ahal izan diotelako.

- AINARA ARGOTIA -



Zabaldu dituzte denda eta negozio txiki asko, baina neurri berezi asko hartuta. Hasteko, 0 fase honetan txanda hartu behar da astelehenaz geroztik zabalik dauden dendetara joateko, eta aldi bakoitzean bezero bakarra sar daiteke barrura. Dendariak ezin dituzte itzaroteko eremuak antolatu denda barruetan, eta kanpoan ere, distantzia mantendu behar dute bezeroek. Printzipioz bezero bakoitzeko saltzaile bakarra egotea da irizpide orokorra. Hau da, saltzaile bakoitzak ezin die aldi berean bi bezerori erantzun eta bezeroak beharrezko duen denbora bakarrik pasatu behar du barruan. 65 urtez gorako bezeroei kasu egiteko ordutegi bat jartzea ere eskatu die Espainiako Gobernuak dendariei, eta ahal bada, paseatzeko edo kirola egiteko ordutegien barruan izatea. Ez dira horiek betebeharreko baldintza bakarrik, hala ere: egunean bitan garbitu eta desinfektatu behar dute lokala jabeek, eta garbiketa egin ostean, babeserako erabilitako gailuak zakarrontzira bota behar dituzte. Laneko arropak ere egunero garbitu behar dituzte, eta jantzien probalekuetan ere bezero bakarra sartu ahal da, eta erabili ondoren, saltzaileek desinfektatu egin behar dute. Are gehiago, bezeroek ukitu baina erosi ez dituzten arropak ere desinfektatu egin behar dituzte eta bi egunean ezingo ditu beste inork ukitu. Denda barruan distantziak gorde beharko dituzte eta dendako sarreran eskuak garbitzeko gelak jarri beharko dituzte bezeroentzat, bai eta paperezko mukizapiak botatzeko edukiontzia ere, ahal dela tapa dutenak eta eskurik erabili gabe zabalitzen direnak. Segurtasun neurriak aplikatzea, beraz, ez da erraza, baina hala ere, dendariak pozik daude zabaldu ahal izan dutelako. Ostalaritzan egoera beste bat da. Etxez etxeko zerbitzua bakarrik zegoen baimendua lehen, eta astelehenaz geroztik taberna gehiagori eman diete aukera zabalitzeko, baina beti ere bezeroek eskatutako jana prestatu eta etxera eramateko.

MIRIAM IRIONDO, Iriondo kirolak dendakoa

“Goizean nahiko urduri etorri naiz dendara, ez nekielako nola joango zen dena. Baina hasiera batean gure asmoa dendan geneuzkan arropa berriak ordentzen hasia zen, eta banaka-banaka etortzen zitzaizkigun bezeroei atenditzea. Denda desinfektatzen-eta jardun gara batez ere, eta egia esan, gaur, lehenengo egunean, jendea etorri zaigu. Telefonoz deitu digute askok lehenengo, ia denda zabalik geneukan galdezko eta banan-banan etorri dira gero, gehienak gure Facebook orrialdean edo eskaparate fisikoan ikusi duten zerbaiteen bila. Patinetea, erakuslehoan izan dugun praka bat, motxila.... eraman dituzte, gauza konkretuak, eta gu pozik. Sare sozialetan egoteak lagundu digu guri behintzat. Asti gehiago ere izan dugu Facebooken gauzak zabalitzeko-eta, eta igarri dugu hori, ikusitakoaren bila etorri direlako bezeroak, dendan bila hastera baino gehiago.

Gauza berriak nahi, eta horixe, gustatu zaien horren bila. Goizean goiz etorri garenean, argia ere emendatuta izan dugu, baina piztu dugu gero, kalean gora dendak argia piztuta zeudela esan digutenean. Erdizka hasi gara, *a medio gas* esaten dena. Herritarrek ari dira, baina, erantzuten. Jendetza handirik ere ez dabil, baina itxita izatea baino hobea da hau. Dendan sartzeko eskuak garbitzeko eskatzen diegu eta zintzo ari dira. Denda zabalitzeko jarri dituzten baldintzak betetzeak zaildu egiten du gure lana, ez dizut ukatuko, baina egoera berrira egokitzea dagokigu; ez dago besterik. Gauzak beste era batera egiten ohitzea da kontua, txipa aldatzea. Gu geu bi lagun gaude dendan, baina nahikoa espazio daukagu gure artean distantzia mantentzeko eta bueno, konpontzen gara”.





0 FASEA

AMAIA AMASORRAIN, Uzuri optikakoa



"Nahikoa estresantea bada egia esan dena ondo betetzea, dauden arau guztiak betetzea. Bezero asko ere ez dira jabetzen egoeraz, eta eskuak garbitu gabe sartzen zaizkizu denda barruraino eta zaindu behar dugu hori ere.... Estresa da. Hori da hitza: estresa. Gure lana lehenaz gain kargatu egin da. Larrialdietarako zabalik izan dugu guk aurrez ere, eta denetarik tokatu zaigu: Bezero batzuk hasiera-hasieratik egon dira oso lasai, eta beste batzuek oso ondo zaindu dituzte babes neurri guztiak, baina egia da, orain, beste lasaitasun bat nabari dela kalean bertan ere. Momentuz neu bakarrik nago lanean, egoera berrira ohitzen. Besteek etxean jarraitzen dute momentuz, eta ni ari naiz hemen hartu behar diren neurri guztietara egokitzen eta jarri behar diren babes-neurri guztiak, manparak eta halakoak, lotzen. Egia esan ez dago erraza. Joan zen asteko iritsi behar zitzaizkidan niri dendara hiru manpara eta oraindik zain nago [aste-lehena]. Informazioa, zer eta nola egin, Txankakua merkataria elkartetik iristen zaigu eta

guri, partikularki, baita Optikoen Elkargotik ere, sortu dutelako protokoloa ere. Saiatzen ari gara batetik eta bestetik iristen zaizkigun arau eta gomendioak betetzen, baina egia esan, beste asko bezain galduta gaude gu ere, Optikoen Elkargoaren protokoloa ere zapatuan jaso nuelako. Ahal den moduan ari gara, denen antzera".

AZIBAR IRAOLAGOITIA, Iraolagoitia aroztegiakoa

"Gu geu ez gaude kexatzeko moduan. Nahikoa zorte izan dugu, egun batzuk izan ditugulako lan egiteko modukoak, baina egia da, orain, azkenaldara, ari zitzaigula gauza estutzen. Etxebizitzetara joateko-eta arazo gehiago izan ditugu, eta ezin izan dugu nahi beste egin, baina esaten dizut: egoera honetan nahikoa zortekoak izan gara. Baina egia da gaur beste lasaitasun batekin ari garela lanean. Igartzen da beste lasaitasun bat kalean ere. Tentsio handiarekin ibili da jendea, eta hori igarri dugu guk geuk. Aurreko asteetan-eta kalean ibiltzea berak ere apurua ematen zuen, igartzen genuelako jendeak ez zuela nahi gremioetarako topatzea kalean, eta zentzu horretan uste dut apur bat lasaitu dela egoera".




AINHOA GARATE, G&M jantzi dendakoa

"Pixkat arraroa da egoera hau. Aste honetan aldeztu aurretik hitzordua eskatu behar dute bezeroek dendara etortzeko eta arraroa da pixkat. Nik neuk goizez zabalduko dut denda aste honetan behintzat. Bezeroak telefonoz, whatsapppe, edota Facebook edo Instagram bidez jartzen dira nirekin harremanetan eta nik txanda ematen diet, dendara etortzeko. Dendan jantzien probaleku bi dauzkut, baina momentu honetan bakarra erabili dezakegu. Bezeroek badute, beraz, arropa probatzeko aukera, baina gero, guk arropa hori lanpara moduko batekin desinfektatu beharra daukagu, bai eta probalekua bera ere. Guretzat hori dena lan extra bat da, baina normaltasunerako pauso bat eman dugu gaur denda zabaldu behintzat. Denda itxita edukitzea baino hobea da hau".



LEIRE PAGEI ETA ALICIA MODREGO, Alire estetika zentrokoak

“Gaur zabaldu dugu lokala, dena ondo garbitu eta desinfektatzeko, eta asteazkenean [hilak 6] hasiko gara zerbitzua ematen. Protokolo bat ere zehaztu dugu, lanean haserako. Bezero guztiari maskarekin etortzeko aginduko diegu, gu geu maskara, eskularruak eta pantailak jantzita jardungo gara lanean, eta kabina guztiak eta tresna guztiak ondo desinfektatu beharko ditugu bezero bat joaten denetik beste bat etortzen zaigun tartean. Badakigu protokoloa betetzeak gure lan-karga handituko duela, baina ez dago besterik, bete behar ditugun kontuak dira eta egokitzea dagokigu. Bezeroei ordua emateko garaian kontuan izango dugu hori, eta tarte handiagoa lagako dugu bi zerbitzuren artean, garbiketa lanak egoki egin ahal izateko. Saiatuko gara behintzat gure esku dagoen guztia egiten. Asteazkenean hasiko gara zerbitzua ematen, esan bezala. Bezeroei ordua emango diegu eta eskatuko diegu emandako orduan etortzea, ez aurretik, ez geroago, bestela kanpoan itxaron beharko dutelako. Jakinarazi dugu dena sare sozialen bidez eta hasi gara bezeroen deiak jasotzen. Hemen dauzkagu mahai gainean agenda guztiak zabalik, eta egia esan, topera gabiltza dei eta mezuei erantzuten. Jendea etortzeko gogoz dago, eta itxura batean lasai, inork ez duelako ezer galdetzen; ordua eskatu besterik ez. Hori bai, badakite denek maskarekin etorri behar dutela hona. Gu geu lanean hasteko desiratzen gaude”.





GREMIOEN GIDA

Arozlegiak
Erreformak
Igeltseritza
Pintura

Leihoak
Iturgintza
Elektrizitatea

Gidan agertzearen onurak!

21€
hileroan

21 €ren truke, hilero, zure enpresaren datuak eta irudia erakutsiko ditugu **BARREN** astekarian!

12
aldiz urtean

BARREN astekaria da Elgoibar eta Mendaron erakusleiho ikusia.

4.885
die ostero

4.885 ale banatzen ditugu Elgoibarren eta Mendaron **DOAN**.

Eman bultzada euskarari eta lagundu gure proiektua finantzatzen.



943 744 112

Alta Agire Kulturagunea, 3. /3. esk
20870 ELGOIBAR



barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

MILAR BIRE

EZOHIKO GUTXIENEN ZERBITZUAK

Behar-beharrezko etxetresna elektrikoak. Ahal den neurrian, etxez etxeko zerbitzuari eutsiko diogu. Arreta ematen jarraituko dugu telefono zenbaki honetan:

943 741 487



OSTALARITZA

Etxez etxeko zerbitzua ematea baimenduta dute ostalariek 0 fasean, eta maiatzaren 11tik aurrera terrazak ere zabaldu ahal izango dituzte, %50ean. Ate bat zabaldu zaie ostalariei, baina hala ere, kezka handiz bizi dute egoera, ez baitakite baldintza horietan zabalitzeak merezi dien.

AINARA ARGOITIA - AINHOA ANDONEGI



HERMINIO DE CARLO, Salento pizzeriako

"Langileak aldi baterako enplegu erregulazioan (ERTE) daude hasieratik eta ni etxez-etxeko banaketarekin nabil. Fakturazioa asko jaitsi da, eta hori elgoibartarrak badirela pizzak eskatzekoak, baina taberna itxita ez da gauza bera. Aldiz, gastu guztiak berdin-berdin ordaintzen ari naiz. Orain terrazak zabalteko baimena eman dute, eta hasieran ezetxean banangoen ere, azkenean, zabaltea erabaki dut. Ez dakit zer izango den, hala ere. Barruko alde zabalteko aukera ematen dutenean ere, baldintza asko bete beharko ditugu eta zabaldu aurretik oso ondo aztertu beharko ditut zenbakiak.

Azken batean, gastuak orain arteko berberak izango dira, eta ezin badugu fakturatu, alferrik izango da zabaltea. Ez dut putzu batean hondoratu nahi. Deseskalatze hau ez dut ondo ikusten. Benidormen beste pizzeria bat daukat, eta hura urtebete barrura arte ez irekitzea pentsatzen ari naiz. Ez badago jenderik, zertarako zabalduko dut? Irekitzeak gastuak handitzen ditu, baina jendea ezin bada kontsumitzera etorri, ez dut nahikoa diru fakturatuko. Nik uda ere oso beltz ikusten dut. Oker egon naiteke, baina nik ez dut uste oporretara orain arte moduan joateko aukerarik izango dugunik uda honetan. Dirua irabazten ez badut ere, gutxienez gastuak ordaintzeko eman behar du negozioak. Hilabetez galdu daiteke dirua, asko jota bi edo hiru hilabete aguantatu daitezke dirua galtzen, baina egoera hau ez dakigu noiz arte luzatuko den. Nik, momentuz, etxez etxeko banaketarekin jarraituko dut eta datorren astean zabalduko dut terraza, noiz ez dakidan arren. Euskaldunak taberna eta jatetxeetara joatekoak dira, eta hori guretzat ona da, baina ez dut uste orain denak kolpera hasiko direnik kanpoan bazkaltzen eta afaltzen, eta irteten hasteak ekarri dezake jendea berriz kutsatzea. Osasun egoerak txarrera egiten badu, atzera egingo dugu eta dena itxiko dute berriz. Hemen garrantzitsuena osasuna mantentzea da, eta ekonomiari buelta ematen gobernuek lagundu beharko dute. Italian dirulaguntza handiak ematen ari dira, eta nire lagunak behintzat hasi dira kobratzen. Hemen ez dugu ezer kobratu oraindik; nire langileak bi hilabetez daude aldi baterako enplegu erregulazioan, soldatarik jaso gabe".



XABI ALBIZU, Belaustegi jatetxekoa

"Alarma egoera ezarri eta berehala aldi baterako enplegu erregulazioan sartu ginen, eta halaxe gaude orduan. Ezkontzak eta jaunartzeak, denak, galdu ditugu. Batzuek esan digute irailean egingo direla jaunartzeak, baina auskalo orduan ere nola gauden. Eta ezkontzak datorren urtera arte ez dira egingo. Egoera beltza daukagu, baina tunelaren amaieran argia badago. Hilaren 11n zabalteko aukera daukagu, baina terrazak barruko, eta %50ean. Horrekin ezin da hau mantendu eta guk ez dugu zabalduko. Hurrengo fasean barruko alde zabalteko aukera egongo da, baina orduan ere mugekin. Gure kasuan jantoki desberdinak ditugu, terrazak, karpak... Ikusi egin beharko nuke zenbat jende sartu daitekeen, eta baita ere zenbat langile beharko

nituzkeen jantoki guztiak atenditzeko. Ez dakit orduan ere zabaltezik izango dugun, oso ondo aztertu behar dugu. Eta, azken fasean ere ikusiko dugu zein baldintza ezartzen dizkiguten. Higienea eta babes neurriak zaintzeko protokoloen bat prestatu beharko dute, baina oraindik ez daukagu informaziorik. Janaria prestatu eta etxera eramateko aukera ere badago, baina gure kasuan ez gaude horretarako prestatuta. Guk lekua eskaintzen dugu, ingurune polit batez gozatzeko aukera, eta hori indartzen ari gara itzulerarako. Maiatzean zehar sare sozialetan berrikuntza guztiak azalduko ditugu. Denbora asko gaude fakturatu gabe, baina gastu guztiak ordaintzen jarraitzen dugu. Gu gainera otsailean oporretan egon ginen, beraz, ia urtariletik gaude lanik egin gabe. Bidaia bertan behera lagatzekotan egon ginen, ikusten nuelako zer zetorren, baina azkenean joan egin ginen. Indian izan ginen, eta han ere somatu genuen urduritasuna. Temperatura neurtzen ziguten leku askotan, jende asko zebilen maskarekin, eta ez tul bat eginez gero, denek gaizki begiratzen ziguten. Otsaila amaierarako etorri ginen, eta martxoaren 6an zabaldu genuen, astebetere berriz itxeko. Jakin izan bagenu, ez ginen oporretara joango. Baina bueno, egindakoa eginda dago. Orain deseskalatzea dator, eta nire ustez, azkarregi doa dena. Nik nahiago izango nuke konfinamendua luzatu eta egoera hobeto gaitutakoan hasi arintze prozesu hau. Hau ez dago kontrolatuta eta broteak berriz egongo dira. Min handia egingo digu honek, eta asko bidean geratuko dira, baina irtengo gara. Hemendik urtebetere askoz hobeto egongo gara denok. Dena kolpera etorri zaigu, ez da izan 2008ko krisialdia modukoa, eta nik uste berreskuratzea ere errazagoa izango dela".



AGUSTIN ALONSO, Lanbroa eta Ibai Ondo jatetxeen jabea

“Egoera zaila bizi dugu. Langile guztiak aldi baterako enplegu erregulazioan daude, eta ni autonomo bezala, jarduera etenda. Langileek oraindik ez dute ezer kobratu ABEEtik (ERTE), eta ia bi hilabete pasatu dira dagoeneko. Ez dakit zer gertatuko den gurekin aurrerantzean, inork ez daki, agintariak eurak ere uste dut galduta dabiltzala eta ostalaritzan behintzat ez gaude pozik Pedro Sanchezek aurkeztu duen planarekin. Maiatzaren 11n terrazak zabaldu daitezkeela esan du, %50ean. Baina hau ez da Levante edo Andaluzia; Euskal Herrian gaude eta hemen egun on bategatik, hiru egun txar egiten ditu, eta terrazarekin bakarrik nora goaz? Aholkularitza-



koek esan didate posible izango nukeela nik bakarrik lan egitea terraza atenditzeko. Esan didatenez, hamabost egunez nik lan egiteko aukera daukat, autonomoentzako laguntzak galdu gabe, eta horregatik, Ibai Ondo erretegia zabaltzea erabaki dut. Lanbroa, momentuz ez, eguraldi txarra dagoelako iragarrita eta ez daukagulako aterperik. Udalak esan digu aukera izango dugula terrazan espazio gehiago hartzeko, mahai gehiago jarri ahal izateko, baina egoera ez da erraza. Agian aktibo egoteko modu bat da zabaltzea, txikito batzuk eta kafe batzuk atera, eta egoera berrirako moldatzen hasi naiteke, baina zenbakiak ondo begiratu behar ditut, dirua galtzeko hobe delako ez zabaltzea. Janaria eramateko prestatzeko aukera ere badago, baina hori ere aztertu egin behar dut. Eta badirudi uztailean zabaldu egin beharko dugula, uztaileko printzipioz alarma egoera bukatuko dela dirudi, eta horrekin ABEEak ere amaitu egingo dira. Orduan, langileak lanean hasi beharko dira, baina auskalo zein baldintzatan! Hemen jendea irteteko da, tabernetan ibiltzea gustatzen zaigu, baina beldur handia dago, eta normaltasun berri hori ez dakigu zer izango den. Nik aurtengo urtea galdutzat ematen dut. Trinitateak eta sanbartolomeak ere joan dira pikutara! Sanbartolomeetarako agian ekintza batzuk antolatuko dituzte, baina ez behintzat orain arte ezagutu ditugun moduan, eta horrela ez dakit aurrera egiterik izango dugun ostalariok. Nik lanari ez diot beldurrik, lan egin nahi dut, baina gutxienez gastuak ordaintzeko adina diru lortzeko. Orain behintzat errentan daukadan lokalaren alokairua ez didate kobratu, eta eskerrak! Badakit beste ostalari batzuei ez dizkietela errentak ere barkatu. Ez dakit noiz bukatuko den hau guztia, baina herritar guztiei testak egin eta mugikortasuna mugatu ezean, egoerak berdin jarraituko du. Orain hobeto gaudela dirudi, baina gero berriz okerrera egin dezake. Bakuna sortzen duten arte gorabeherekin ibiliko gara”.



BRUNO SANTOS DA SILVA, Mendaroko Lagun Betikoak tabernakoa

“Ezjakintasun handia daukagu eta egoera ez da ona, inondik inora. Lehenengo esan ziguten %30era zabaldu ahal izango genuela terraza, gero %50era. Eta jakina, ondo aztertu behar dugu zeintzuk diren baldintzak eta merezi dugun zabaltzea baldintza horietan. Lanera bueltatuz gero aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientearen (ABEE) baja eman behar dugu eta egunean 50 euro irabazi behar badituzte ez dit merezi, eguneko gastuetarako ere ez dudalako egiten. Eta hori neu bakarrik hasita lanean. Nik bi langile dauzkat, biak ABEEen, eta ni autonomoa naiz. Gaur bertan deitu behar dut aholkularitzara, galdetzeko ea aukera daukadan bi langileak ABEEen laga eta ni lanera

itzultzeko, ABEE osoa galdu gabe. Kotizazio-oinarriaren %70a ordaintzen ari zaizkigu guri orain ABEEen, eta ni neu beste laguntza txiki bat ari naiz jasotzen, baina hutsa, argindarraren faktura ordaintzeko justu-justu. Eta gastuak asko dira. Zorarena da. Gure egoera ziurtatzera jo behar dugu, zabaldua ere ez dakigulako jendeak nola erantzungo duen. Taberna zabaldu eta salduta gelditzeko arrisku handia daukagu, mugimendurik ez badabil. Gure negozioko jendearen ahal ekonomikoari eta animoari oso lotuak daude, eta batzuk taberna zabaltzeko eskatzen ari bazaizkit ere, ikusten ditut beldurrez edo umore handirik gabe dabiltzanak ere. Nire bueltan ikusten dudana da estu xamar bizi direnen kopuruak gora egin duela, eta jakina, lepoan soka duela bizi dena nekez etorriko da tabernara. Zabaldu nahi nuke, apustua egin, baina zabaltzekotan ere, neu bakarrik hasiko naiz. Ez dakit zer beste baldintza bete beharko dugun gainera. Tabernak ixteko agindu bezperan itxi nuen nik, emaztea ospitalean nuelako eta ikusten nuelako ordu batzuen buruak denek itxi beharko zutela, baina geroztik, egun asko pasatu dira. Motxaila Eguna galdu genuen, egun handia dena guretzat diru-sarreraren aldetik, eta jairik ere ez dugu izango. Ez litzake oso logikoa izango behintzat santanak ospatzea, eta jakina, hori taerbarriotzat galera handia izango litzateke. Udala behintzat nahiko ondo portatu da nirekin. Alokairua ez naiz ordaintzen ari. Zergen kobratzea ere atzeratu dute, nahiz eta hori ez den guretzat laguntza handia. Hau dena pasatzen denean batu beharko gara eta hitz egin”.



ATZERRITIK

Espainiako Gobernuak martxoaren 14an ezarri zuen alarma egoera, eta hasiera batean bi asterako izango zela esan bazuen ere, ia bi hilabete pasatu dira ordutik, eta aste honetan, gainera, beste bi astez luzatzea erabaki du Kongresuak, maiatzaren 24ra arte. Atzerriko herrialdeetan ere koronabirusari aurre egiteko neurriak hartu dituzte. Orriotan jaso ditugu nazioarteko testigantzak, elgoibartarren eta mendaroarren eskutik.

AINARA ARGOTIA - AINHOA ANDONEGI



GARAZI AIZPURUA, Magisteritza ikaslea, Italian (Elgoibar, 1999)

“Perugian nengoen irailetik, Italia erdialdean, Florentzia eta Roma artean. Erasmus proiektuaren bitartez Magisteritzako hirugarren maila egitera joan nintzen, eta berez ikasturte guztia egin behar nuen han, baina martxo hasieran etorri nintzen Elgoibarrera. Gure zonaldea nahiko lasai zegoen, eta hasieran ez nuen pentsatu etxera etorri behar izango nuenik, baina asteburu pasa Veneziara joan ginen, eta han oso bestelako egoera aurkitu genuen. Askoz kutsatu gehiago zeuden, jende asko maskarekin ikusten zen kalean eta Perugiara itzuli ginenean kezka handiagoa igarri genuen. Nire gurasoak ere kezkatzen hasi ziren, mugak ixteko

arriskua zegoelako, eta pentsatu genuen etxera itzultzea izango zela onena. Gaixotzen banintzen ere, nahiago nuen isolamendua etxean pasatu Italian baino. Nire lehen asmoa egun batzuk Elgoibarren pasatu eta berriz itzultzea zen. Maleta txiki batekin etorri nintzen, baina egoerak okerrera egin du, eta ez dakit noiz itzuli ahalko naizen nire gauzen bila. Klaseekin jarraitzen dugu on-line, eta azterketak ahozkoak izango direla aipatu dute. Horrek apur bat kezkatzen nau, italiarekin ez naizelako oso ondo moldatzen, baina uste dugu kanpokoak garenok erraztasunen bat emango digutela. Erasmus egitasmoarekin Perugian geunden gehienak itzuli gara etxera. Han geratu diren lagunek esan digutenez egoera hemengoaren antzerakoa da, etxean konfinatuta daude eta oinarrizko zerbitzuetara edo lanera irten daitezke bakarrik. Pena izan da Erasmuseko urtea horrela bukatu behar izana, baina orain arte han bizi izan dudana oso polita eta aberasgarria izan da. Jende asko ezagutu dut, eta herrialdea bera ere asko gustatu zait”.



EKHI ZUBIAURRE, Medikuntza ikaslea Polonian (Mendaro, 2001)

♦ Zein egoera bizi duzue Polonian?

Otsaila amaieran hasi ginen neurriak hartzen hemen. Gel desinfektatzaileak erabiltzeko eskatzen hasi ziren eskolan eta irakasleek ohartarazi ziguten litekeena zela aurrez aurreko eskolak etetea. Fikzioa ematen zuen. Alemaniako eta Norvegiako ikasleei etxera itzultzeko eskatzen hasi zitzaizkien euren herrietatik. Eta hala iritsi ginen martxoaren 10era eta ohar bat jaso genuen unibertsitatetik esanez eskolak bertan behera uzten zituztela. Flipatuta gelditu ginen, artean bi koronabirus kasu baino ez zeudelako Polonian. Geroztik, klase bakar bat ere ez dut jaso nik on-line. Alde horretatik desastre hutsa ari da izaten hau. Hemen gurekin zeuden ikasle espainiar batzuek enbaxadarekin jarri ziren harremanetan eta etxera itzuli ziren lehenengo golpean, baina besteok hemen gelditzea erabaki genuen, pentsatuta ez zela horrenbestekoa izango. Baina Polonian hamalau kasu zenbatu zituztenean muga guztiak itxi zizkiguten eta jai!. Ikasle alemaniarrek joan ziren, norvegiarrak ere bai, poloniarrek nor beren etxeetan daude eta nazionalitate espainiarra dugun 40 bat ikasle egongo gara orain hemen. Hemen gaudela jakin arren, unibertsitatea ez da gurekin harremanetan ere jarri. Unibertsitate-

aren egoitzan nago ni. Hemengo arduradunek ohar bat bidali ziguten hasieran ez kezkatzeko esanez eta etxera ez bueltatzeko eskatuz, baina handik gutxira kontrakoa esan ziguten. Ordurako, baina, mugak itxita zeuden.

♦ Zer egin dezakezue eta zer ez?

Polonian ez da kasu larririk izan eta tabernak eta saltokiak itxi bazituzten ere, berehala zabaldu zituzten berriro. Eta orain, kalera irten gaitzeko. Dena dago zabalik. Hori bai, duela hamabost bat egunetik kalean maskara erabiltzea derrigorra da. Kalean, baina, ez da aparteko estuasunik sumatzen, eta aldaketa handirik ere ez dut igarri, hemen bestela ere ez delako hor beste jende ibiltzen kalean. Ni neu ondo nago, ez nagoelako bakarrik, baina ez da erraza eta etsipen sentsazio halako bat badaukat. Dirutza ordainduta gaude hemen. Berez gure unibertsitatearen ezaugarri nagusia da lehenengo egunetik ematen dizkigutela eskola praktikoa, eta hori dena galdu dut. Ez digute esaten klase presentzialik ez dela egongo, baina hasieran esan ziguten martxoaren 25ean hasiko zirela, gero apirilaren 12an hasiko zirela, 27an ondoren eta orain, martxoaren 24a aipatzen dute. Unibertsitatean sartzeko dena modu telematikoz egin behar da hemen, eta ustez modu horretan lan egiteko prestatuta egon beharko lukete, baina ezin okerago ari dira.



ANTTON ALBERDI, Unibertsitateko irakasle eta ikerlaria, Danimarkan (Elgoibar, 1987)

◆ Zer moduz zaudete?

Ezin gara kexatu. Umeak [6 urte-tik beherakoak] eskolan dira jada eta guk etetik lanean jarraitzen dugu. Unibertsitateko laborategira bakarrik joan gaitezke (klaseak on-line dira),

eta horien funtzionamendua ohiko dentsitatearen %10ean soilik dago. Hau da, lehen 80 lagun zeuden lekuan orain 8 besterik ez daude lanean; gainerakoak, etxean. Unibertsitateko lan guztia Internet bitartez egiten dugu (bilerak, klaseak...), baina ondo prestatuta zegoen sistema lehendik ere horrela funtzionatzeko. Eskolari dagokionez, 2 urteko umeen kasuan, bikoteka pasatzen dute eguna irakasle batekin (irakasle bat bi umeko) eta 4 urtekoen kasuan launaka (irakasle bat lau umeko). Egutero leku ezberdinetara joaten dira, baina beti lagun eta irakasle berarekin. Horrelako egoeratan konturatzen da bat zerga asko ordaintzeak eta horiek gizartean inbertitzeak duen balioaz.

◆ Zein neurri hartu ditu Gobernuak orain arte?

Guztiok sorpresaz harrapatu gintuen itxialdiaren albisteak, Euskal Herrian baino 2 egun lehenago gertatu baizen, hor baino 10-15 aldiz kasu gutxiagorekin. Nik uste hasiera batean gehienok pentsatu genuela gehiegikeria zela, baina denborak erakutsi du ezetz. Itxialdia, dena den, ez da horren zorrotza izan. Beti izan dugu etetik irteteko aukera, eta norbanakoen erantzukizunari deia egin zioten lehen ministroak eta erreginak. Azken honen ezohiko telebista mezuak eragin handia izan zuen antza. Historian lehen aldiz herritarrei lotsarik ez genuela eta gaizki portatu ginela esan zigun, lehen egunetan neurriak zorrotz bete ez genituelako. Guri oso arraroa egiten zaigun arren, erreginaren esanak eta eginek eragin handia dute gizarte honetan. Bestalde, esango nuke kritika eta kexa gutxi jaso dituela gobernuak, bai oposizioetik eta baita herritarrengandik ere. Hemen estatuarekiko dagoen konfiantza,

oneraiko zein txarrerako, oso handia da.

◆ Neurriak arintzen hasi dira, zein da herrialdearen egoera orain?

Kasu positiboak jaitsi egin dira (azken astean testatuen %1 baino gutxiago daude infektatuta), eta osasun sistema indartsua ez dago presiopean. Presioa ez dirudi inoiz ikaragarri handia izan denik, guk osasun ministerioari emandako laborategiko material guztia (ikerketarako erabiltzen ditugun RNA erauzketa kitak, PCR materiala, etab.) itzuli baitigute. Herrialde txiki eta aberatsa da, eta asko inbertitzen da osasun sisteman. Dena den, badakigu birusaren transmisioak jarraituko duela, eta hori hasierako egunetan bezain azkarra ez izateko neurriak hartu dira. Apirila erdialdeaz geroztik neurriak apurka-apurka leuntzen joan dira. Haur Hezkuntzako umeak apirilaren 20an hasi ziren eskolan, dendak irekita daude aurreko asteaz geroztik, eta maiatzaren 10ean espero da hurrengo aldaketa gertatzea. Dendek, eskolek, etab. protokolo zorrotzak jarri dituzte jendearekiko kontaktua murrizteko, eta jende gehienak errespetatzen dituela dirudi.

◆ Nola aurreikusten duzu etorkizuna epe motz eta luzera?

Badirudi ondo doala, baina badago atzera egiteko arriskua ere. Esango nuke zorte handia izan dugula denborekin. Birusa "neguan" iritsi zen hona, daniarrek kanpoan eta lagun artean igarotzen duten denbora oso murrizta denean. Udaberria iritsi da ordea, tenperaturak igo dira, eguzkia irten da, eta horrekin batera, herrialdea eraldatu egiten da. Ez dakit kanpoan lagunekin eta familiarekin egoteko nahiari eusteko gai izango ote garen; azken egunotako egoera ikusita, ezetz dirudi (parkeak jendez gainezka, eta ezarritako arauak mugaraino eramanda; 10 laguneko taldeak osa daitezke gehienez). Beldur naiz arazo bera izan dezaketela Suedian ere. Ez da erraza aurreikuspenik egitea, baina agian erregina berriz irten beharko da herritarroi belarritik tira egitera!



IMANOL ETXEBERRIA, Gaztelania irakaslea Dohan, Qatarren (Mendaro, 1965)

◆ Nola bizi duzue hau dena Qatarren?



Ondo ez. Qatar herrialde txikia da Espainiarekin alderatuz gero. Hemen ez gara hiru milioi biztanlera iristen, eta momentuz, 12.000 lagun

kutsatu dira COVID-19arekin eta hamar lagun hil, baina herritarrak kezkatuta daude. Horko datuekin alderatuta, hemen ez daukagu horrenbeste kutsatu momentuz, baina egia da azkeneko aste honetan kopuruak nabarmen egin duela gora eta kezka suma dai-

tekeela. Segurtasun neurriak, edonola ere, aspaldi hasi ginen hartzen hemen, baina ez dira hor dituzuenak bezain gogorrak. Espazio publiko guztiak itxita daude (parkeak, hondartzak...), erosketak egitera joaten garenean maskara eta eskularruak jantzita joan behar gara, eta konfinamendua betetzea gomendatzen dute, baina ez da derrigorra, eta, beraz, momentuan, irten gaitezke kalera.

◆ Irakaslea zara. Nola ari zarete moldatzen?

Duela sei-zazpi bat aste itxi zituzten hemen ikastetxe guztiak eta eskolak on-line ematen ari gara. Eta arazoak izaten ari gara,



ATZERRITIK

bai, baina aurrez aurreko eskoletan ere izaten genituen. Modu honetan lan egitea estresanteagoa da, hori bai. Aurrez aurreko eskoletan ikasleen kontrol handiagoa izaten dugu irakasleok eta baliabide gehiago ere bai lanerako. Prestakuntza handiagoa behar da on-line bidez eskola dezenteak emateko eta ikasleek aitzakia gehiago dituzte, beren betebeharrak ez betetzeko. Hemen, zorionez bi aste falta dira ikasturtea amaitzeko. Okerrena da abuztuan hasten dela ikasturte berria, eta hasi ere modu honetan hasi beharko dugula ziurrenik, eskolak on-line ematen.

♦ Nola ikusten duzu etorkizun hurbila?

Esango nuke hemengo egoera horkoa baino hobea dela, baina egia da gu, hemen, atzetik goazela. Kezkatzen nau udak. Oporraldia dator eta ez dakigu bidaiatzeko aukerarik izango dugun. Hori kezka handia da kanpotarrentzat eta hemen, Qata-

rren, gehiengo atzerritarrak gara. Antzietate puntu horrekin gaude, uda osoa hemen pasatzea gogorra izango litzatekeelako. 45-50 gradu egiten ditu hemen, eta gogorra eta tristeza litzateke, baina hau da dagoena.

♦ Kasu gutxi daude. Beharbada ez dago hemen besteko kulturarik kalean ibiltzeko?

Ez. hemen ere jendea asko ibiltzen da kalean, baina egia da hiria ez dagoela diseinatuta kalean ibiltzeko. Badaude toki berezi batzuk jendea batzeko. Hemen ikaragarri gustatzen zaie merkataritza gunetara joatea. Gainezka egoten dira, baina orain itxita daude eta nora jo ez dakigula gaude. Alde Zaharrean ere jende dezente ibiltzen da, batez ere asteburuetan. Donostiako Parte Zahararen antzekoa da, taberna askorekin eta giro handiarekin, baina hori ere itxita dago. Orain, beraz, etxean sartuta gaude.



ALOÑA ARANBURU, Espainiako enbaxadako Ekonomia eta Merkataritza bulegoko langilea, Mexikon (Elgoibar, 1970)

“Etxekoak ondo gaude osasunez. Senarrak eta biok lanean jarraitzen dugu, beraz, zorionekoak gara. Mexikon osasun larrialdia Espainian baino beranduago hasi zen, baina hala ere, bada hilabete isolamendu neurriak martxan jarri zituztela. Ordundik, etxetik lan egiten dut, eta seme-alabek klaseak online jarraitzen dituzte. Senarrak lehen bezala jarraitzen du lanean, bere lana oinarrizko sektoretzat jotzen delako. Gobernuak hasieran ez zituen aintzat hartu Osasunerako Mundu Erakundeak emandako gomendioak eta bizitza normaltasunez jarraitu genuen hemen. Gainontzeko herialdeetan hartu diren osasun eta gizarte neurriak beranduago hartu ziren hemen: oinarrizkoak ez diren aktibitateak mugatu, distantziak eta garbitasun neurriak areagotu, telelana sustatu eta enpresa txikientzako mikro-kredituak jarri zituzten martxan. Zailtasun handiko egoera baten gaude, aktibitate geldierak enpleguan edukiko duen eraginagatik eta normaltasunera iristeko denbora asko beharko dugulako. Mexikon ezkutuko ekonomian bizi den jende asko dago, egunean eguneko soldataz bizi direnak, eta krisi honetan ere gizarte sektore ahulena dira. Krisiaren eragina asimetrikoa izango da, sektore eta herrialdeen arabera, bana milioi bat pertsonak baino gehiagok lanpostua galduko dutela aurreikusten da. Epe ertainera AEBetako aktibitate ekonomikoaren indarberritzeak Mexikoko ekonomiaren berraktibatzea bultzatuko duela espero dugu, beste hainbatetan gertatu izan den bezala, eta urte bukaeran aktibitate ekonomikoa indartzea espero da. Egoera nahasi hau lehen bait lehen garaitzea espero dugu”.



MAIDER LEHR, software ingeniaria, Estatu Batuetan (Elgoibar, 1978)

“Martxoaren 13tik konfinatuta gaude, etxean. Lan aldetik ez dut aldaketa handirik igartzen. Gure enpresako jendeak Kalifornian, New Yorken edota European ere egiten du lan, beraz ohituta gaude modu honetan lan egitera. Kirola egitera edo pasiatzera irtetea baimenduta dago hasieratik, beraz, astean hiru bat aldiz irteten naiz korrika pixkat egitera. Goizeko 7:00etan irteten naiz, eta ordu horretarako jendea ibiltzen da kalean pasiatzen. Hemen maskara erabiltzearekin obsesionatuta daude. Korrika egitera maskara gabe joaten naiz, eta lehenengo batean txakurrak paseatzera irtendako jubilatuta pareja batek sekulakoak esan zizkidan.

Hemen jendea binaka edo hirunaka irteten da kalera, eta etxeetan ere elkartzen dira, baina erdiguneko kaleak hutsik ikusten dira. Boulderren eta inguruetako herrietan 500 kasu daude konfirmatuta, eta 30 lagun hil dira. Estatu Batuetan dagoeneko milioi batetik gora kutsatu daude, eta 60.000 inguru hil dira. Estatu bakoitzak bere babes neurriak hartu ditu, baina agintariak nahiko galduta dabiliza kontu honekin, eta Trump bera ere bai. Egoera berria da guztiontzat, baina iruditzen zait testak denon eskura egon beharko liratekeela. Badirudi gaurtik aurrera hasiko direla neurriak arintzen, baina ez dut uste alde handirik igarriko dugunik, eta printzipioz, etxetik lanean jarraituko dugu, gutxienez ekainerarte”.

MUGA BERRIAK

Probintzia da muga

Atea apurka zabalduko dela nabarmendu zuen Pedro Sanchez Espainiako Gobernuko presidentek, konfinamendua arintzeko planaren berri eman zuenean. Zehaztu zuen aurrera begirako bidean lau geltoki izango zirela, lau fase, eta gutxienez ekainaren amaierara arte eta gehienez uztailearen erdiraldera arte luzatuko zela prozesua. Baina gehiago ere esan zuen: bitarte horretan herritarrek ezingo zutela probintzia batetik bestera mugitu. Neurri horrek hautsak harrotu zituen Euskal Herrian zein hemendik kanpora.

- AINARA ARGOITIA -



MAITANE MENDIKUTE, Mendaro (1984)

♦ Mendaroarra zara, Markinan bizi zara eta Berriatuan egiten duzu lana. Lanera itzuli zara, ordutegi batzuen barruan kalera irten zaitezke hor ere, baina... zerbait falta duzu.

Ez nago gustura, ez. Entzun nuenean ezin nuen sinetsi, erabat ulergaitza egin zitzaidan, eta sekulako amorrua sentitu nuen. Konfinamendutik irteteko planak lau fase zituela esanez entzun nuen Espainiako presidentea eta halako leuntze bat bazetorrela sentitu nuen. Iruditu zitzaidan, gainera, arintze hori nahiko azkar emango zela, kontuan izanda oraintsu arte etxetik irten ezinda egon garela. Eta pentsatu nuen etxeok ikusteko eguna gertuago neukala, baina gero, tupustekoa hartu nuen probintzien kontuarekin. Neurri horren arabera, ekainaren 22ra arte ezin naiteke Mendarora itzuli etxeok

ikustera, baina tarte horretan lanera joan ahal izango naiz, zabalduko dituzte saltokiak, bai eta antzoki eta abarrak ere, eta ulergaitzena egiten zaidana: aire librean 400 lagun baino gutxiagoko kultur ekintzak egin ahal izango dira. Bai, ikusleak jarrita egon beharko dira eta distantziak gorde beharko dira, baina 400 lagun elkartu ahal izango dira. Ez dakit gehiegizkoa iruditzen zait.

♦ Mugen beharrik ikusten duzu zuk? Nola egingo zenuke?

Ulertzen dut mugikortasuna mugatu egin behar dela egoera honetan, birusa azkar zabaltzen delako eta muga batzuk zehaztea ezin bestekoa delako gehiago zabal ez dadin, baina probintzien kontu hori neurritz kanpoko iruditzen zait gurea moduko herri baterako. Muga-mugan bizi gara gu, gure eskualdean bertan bi probintziatako herriak daude, hartueman handia daukagu batzuk bestekoekin... Begira, askoz egokiagoa iruditzen zait Frantzia hartu duten neurria bera ere. Han ezin dira etxetik 100 kilometro baino urrutiagoa joan. Guk aldiz, mendiaren beste isurian daukagu etxeok, eta onenean ere, ezingo ditugu ikusi ekainaren azkenera arte. Markinatik Andaluziara joateko besteko debekua aplikatu digute Markinatik Mendarora joateko. Gehiegizkoa iruditzen zait. Inoiz baino gogo handiagoa daukat etxera itzultzeko, gurasoen sekula baino behar handiagoa ere bai, bi ume txiki daukadalako, eta ezin! Egokiagoa iruditzen zait, adibidez, administrazio bera daukagun hiru lurralde historikoak, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaia hartzea unitatizat. Entzun ditut hori moldatzeko proposamenak eta badaukat aldatuko duten itzaropena, baina momentuz hori da daukaguna eta ezin ulertuta nabil. Tira, ez gara leku txarrean bizi eta portale berean beste bi mendaroar ere badituzte. Horri eutsi beharko diogu. Kuadrillako lagun batek esaten dit Arnoatera igo beharko dugula denok, batekoak eta bestekoak, eta hantxe, mugaren bueltan batu, distantziara. Asmatu beharko dugu zerbait, baina benetan eramanezina egiten zait entzutea diskotekak ere nik ama ikusi aurretik zabalduko dituztela.



MEKANOSA

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO
 cordonvilarchao@telefonica.net
 San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26
943 740 570 / 636 98 61 62

LANA.....
Eskaerak

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 631 895 039

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 685 386 485

Adinekoak zainduko nituzke. Erreferentzia onak dauzkat. ☎ 688 735 551

Adinekoak nahiz umeak zainduko nituzke. Arduratsua naiz eta berehala lanean hasteko moduan nago. ☎ 615 526 482

Adinekoak eta gaixoak zaintzeko prest nago. Euskalduna naiz. ☎ 617 571 210

Adinekoak zainduko nituzke. Arduratsua naiz. Asteburuetan edo etxeko langile moduan jarduteko prest nago. ☎ 632 355 103

Adinekoak nahiz umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 640 031 348

ETXEBIZITZAK.....
Alokairua

Bikote elgoibartarrak prezio arrazoizkoa duen pisua hartuko luke alokairuan. Etxe baten jabea bazara edo etxea alokairuan duen norbait ezagutzen baduzu, deitu mesedez. ☎ 619 966 696

Osasun gida Osasun gida Osasun gida

Osasun gida Osasun gida Osasun gida



RPS233/13
Tel.: 943 366 377
San Bartolome, 22
20870 Elgoibar



Ainara Iriondo Ansola
GIZA ELIKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA
Terribio Etxebarria, 22
Eibar
677 551 850



fisio&mas
Fisioterapia aurreratua eta
Kirol Berregokitzea
Trenbide kalea, 13
943 740 191 / 607 903 608
www.fisio-mas.com
100% E7.19



RPS 183/12
Uzuri
optika audio
Elgoibar
Tel.: 943 740 359
Deba
Tel.: 943 192 192



Fernando Urizar Barandiaran
R.P.S.: 32/17
Medikuntzan doktorea
Psikiatrian espezialista
Psikoterapia psikoanalitikoak
Psikosomatika
Ego-Gain kalea, 18-1A (Eibar)
Bailen kalea, 9, 1. ezk. (Bilbo)
furizarf@yahoo.com
615 715 404



Jeku edero
hortz klinika
RPS 171/12
Elena Herrero Lobo
Aita Agirre Erparantza, 5
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 530 053



federópticos
ikus
RPS 65/07
San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734



RPS 271/12
ainhoa
fisioterapia
Jausoro plaza, 6 beheka
Elgoibar
943 531 953
669 565 745




ROSA M^a PINTADO
Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749
660 969 679
rosapf@telefonica.net

Gure komunitatean lau terraza eta patio bat daude. Aspaldidunik, iritzi desberdinak daude terrazak erabiltzeko moduari buruz eta terrazak dituzten edo patioa sar daitezkeen jabeek hartzen duten konpromisoari buruz. Jakin nahi nuke nola arautu dezakegun egoera hori.

Eraikin baten goialdean dauden terrazak estalki edo teilatu ere badira, baina horien erabilera edo gozamina jabeekideren bati esleitu ohi zaio. Terrazaren erabiltzaileek garbitasun- eta kontserbazio-egoera ezin hobean eduki behar dituzte, eta horiek ez betetzeagatik beste jabeak edo etxebizitzaren erabiltzaileei eragindako kalteen erantzuleak izango dira. Era berean, argipatioak elementu komunak dira, eta lehen solairuek erabili ditzakete, beraz, garbitasun eta kontserbazio egoera ezin hobean eduki behar dituzte. Patio edo terraza bat teiltatutxo edo antzeko elementu batekin estali nahi izanez gero, jabe guztien baimena izan behar du. Jabeekideen batzarraren baimenik gabe patio edo terraza bat estaltzen badute, komunitateak izango du esku-bidea elementu horiek jatorrizko egoerara itzultzeko egokitzat jotzen dituen jarduketak hasteko. Era berean, jabe guztiek horien garbitasuna bermatzeko betebeharra dute, eta debekatuta dago edozein elementu patioetara botatzea. Patioetan arropa-esekitokiak instalatzeari dagokionez, solairu bakoitzean argi-patioaren kanpoko hormen paraleloan instalatu behar dira. Gainerako jabeekideei eragozpenik ez sortzea, horiek ere esekitokiak jartzen baitituzte edo patioarako leihoak baitituzte. Eta, jakina, arropa xukatu egin behar da, eta azpiko solairuko leihoetara ez iristeko moduan eskegi.

Gomendioa: Komenigarria da aipatutako puntuak eta komunitateari kezka sortzen beste batzuk ere barne araudian jasotzea.



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Julen**, zure 11. urtebetetzean. Ondo pasa eta muxu handi bat etxekoan partez.



Zorionak, **Teo**, maiatzaren 12an 8 urte beteko dituzulako. Muxu asko familiakoan partez. Oso ondo ospatu!



Zorionak, **txapeldun**, domekan 10 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat.



Zorionak, **Martin**, atzo 2 urte egin zenituelako. Ondo ospatu eguna, eta milaka muxu familiakoan partez.



Zorionak, **amama eta aittita**, bihar zuen urrezko eztei eguna delako. Laster ospatuko dugu merezi duzun bezala! Asko maite zaituztegu! Zuen seme-alaba eta biloben partez, patxo handi bat!



Zorionak! 57 urte ezkontuta eta 57 egun *etxealdian*! Ez zerate makalak! Gozatu astelehenian eta gorde diru apur bat Aittola Zahar zabalitzen deberako. Etxekuak.



Zorionak, **Saioa**, atzo 12 urte egin zenituelako. A ze poza eta ilusioa ematen dizun urtebetetze egunak! Jarraitu horrelako pozik. Patxo bat etxekoan partez.



Zorionak, **Ibon!** Etxeko txikixa haunditzen ari da! Jarraitu horrelako jator, maiztia. Milaka patxito asko asko maitte zaitugunon partez.



Zorionak gure etxeko printzesari, asteartean 6 urte bete zituelako. Muxu potolo bat etxeko guztion partez.

Erretratu bakarrekogurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€.
Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarrekogurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€.
Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

Alarma egoerak irauten duen bitartean, Elgoibarren guardiako botikarik ez dagoen jai egunetan Yudego farmazia zabalik egongo da, 10:00etatik 13:00etara.

| GUARDIAK | | Egunez: 09:00-22:00 | | Iluntzean: 20:00-22:00 | | Larunbatak: 9:00-14:00 (*) | |
|--|--|---|--------------------------|---|----------------------------|--|--------------------------|
| 8 BARIKAKUA | 9 ZAPATUA | 10 DOMEKA | 11 ASTELEHENA | 12 MARTITZENA | 13 EGUAZTENA | 14 EGUENA | 15 BARIKAKUA |
| Egunez Yudego | Egunez *Oruesagasti *Garitaonandia | Egunez *Oruesagasti | Egunez Barrenetxea | Egunez *Ibañez | Egunez Garitaonandia | Egunez Arriola | Egunez *Fernandez |
| Iluntzean Yudego | Iluntzean --- | Iluntzean --- | Iluntzean Barrenetxea | Iluntzean Barrenetxea | Iluntzean Garitaonandia | Iluntzean Arriola | Iluntzean Barrenetxea |
| * Fernandez: Herriko enparantza, 4 Garagartza (Mendaro) 943 756 142 | | * Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) 943 751 638 | | * Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) 943 751 384 | | Urte guztian, gabez: 22:00-09:00 Barandela - Ziriako Agirre kalea, 4 (Eibar) 943 206 984 | |

BARREN sare sozialetan





facebook.com/barrenaldizkaria
twitter.com/barreneus
instagram.com/barrenaldizkaria





Irati Agirreazaldegia

Ur-jauzia abestiarekin etorri zen Zea Mays. Zuloa zegoen kantuaren ur jauzi lehorrean, eta ni zulo batetik, ur-jauzian erortzen den ur mordoari begira ari naiz. Zulotik argazkira, etxean hainbeste egunean sartuta egon garen honetan, bat baino gehiago bezala, gure une gogoangarriak gordetzen dituzten irudiei begira egon bainaiz maiz.

Zuloa islatzen dute kantuaren hitzek, zuloa etxean, zuloa etxe hutsean. Beteak daude, ordea, etxeak jendez eta ez noski, zuloak birusaren hau-tsean.

Ura eta etxea, etxea eta ura, eta azkenean, pixkatean bada ere, irten ahal izan gara gure ingurura. Oporretan horrelako ur-jauziren bat ikusteko gogoa etorri zaio bati baino gehiagori burura, baina gertuko baserri auzoetako iturrietako ur-salto txikiekin konformatu behar, edo aurrerago, Gipuzkoan barrena ibiltzeko aukera izanez gero, Kilimonaer joateko gertura eta Aiako Harrietan da goen Aitzondoko ur-jauziak zein Zaldibiko Osinberdekoak ere badute beren lilura.

Ur tragoa egin eta etxera itzultzeko gogorik bada? Gogorik ez, baina norbait etorri aurretik erretiratu behar badaezpada. Eta gainera, zer egin behar da ba koronabirusak sortu badu mendian behera doan ur-jauzia bezalako antzerki, dantza, kontzertu, bertso saio eta beste hainbat ekitaldiren beherakada!

Ni ere etxean egon naiz irteteko baimena noiz iritsiko eta orain ere zain egongo naiz ur-saltoaren azpian musika tresna, dantza-pauso, bertsoarako gai, doinu eta errima, antzerkian komedia zein drama, etabarren zipritinak noiz jausiko eta noiz gu bustiko.



Iñigo Lamelas

“Ur tragoa egin eta etxera itzultzeko gogorik bada? Gogorik ez, baina norbait etorri aurretik erretiratu behar badaezpada”




2012ko maiatzaren 7an hil zen.

VIII. URTEURRENA

Itziar Loiola Arrillaga

*Gure ondotik joan zinela
zortzi urte pasa zaizkigu.
Zuk utzitako hutsuneakin
bihotza minduta dugu.
Zure irribarre eta alaitasunaz
gogoan bizi gara gu.
Zeruko izarrik argitsuena
Itziar, maite zaitugu.*

Familiakoak



2012ko maiatzaren 7an hil zen.

VIII. URTEURRENA

Itziar Loiola Arrillaga

*Nola agurtu gure laguna
hamar lerro eskaxetan
ezin sinistu, ezin ulertu
hor gabiltza burruketan
emazte, ama, alaba ona
neska alaia benetan
zure taupadak entzuten dira
kuadrillako bihotzetan
beti aurkituko dugu elkar
Anbotoko zelaietan.*

Kuadrillako lagunak



2012ko maiatzaren 11n hil zen.

VIII. URTEURRENA

Angel Mari Arregi Cano

*Gure ondotik
joan zara,
baina betiko
izango zaitugu
gure bihotzetan.*

Familiakoak



Imajinatu Batxilergoa Eibarko La Sallen

✓ **Artezkoa**

✓ **Giza eta gizarte zientzietakoa**

✓ **Zientzietakoa**

Aurrematrikula zabalik:
Maiatzaren 4tik 22ra



623189058



www.lasalleeibar.com



azitain@lasalle.es

